

Baleike

Zumaiaiko herri aldizkaria. 17. zbkia. 1995eko urria. 100 pzta.



Kirolak


**Triatloi-ko
argazki eta
sailkapenak**

Ze berri?

**60.000 rodabailo
ekarri ditu
Orrua enpresak**

Erreportaia

**Narrondo
ibaiaren horma
berrituko dute**



**AEK eguneko
gehigarri
berezia!**

Badator!!


(Javier Carballo utzitako argazkia)



Non dago itsasuntzi hau? Zein da atzeko mendi hori? Talai-Mendi da, bai, eta eta Amaiako plaza inguruak dira argazkian azaltzen direnak. "Victor Ochoa" untzia da, Puerto de Vegakoa eta bistan denez, bertako marinelek abilitade izugarria zuten bela artean ekilibrimoak egiten.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa
fundación kutxa

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



ZUMAIako INSTITUTUA
Aita Mari Auzategia, z/g
20750 - ZUMAI
86 08-09/86 08 10

Zumaiako Udalak diruz
lagunduriko aldizkaria



BALEIKE

HERRI ALDIZKARIA

Foronda kultur etxea
tfnoa: 86 10 56

argitaratzailea

**ZUMAIAKO
GAZTE
BATZORDEA**

Ian taldea

Iratxe Aizpurua
Esther Martinez
Itziar Manzidor
Xabier Azkue
Igor Uranga
Josu Waliño
Gorka Zabaleta
Juan Luis Romatet

Kolaboratzaileak

G.E.G., Natur taldea,
Miriam Romatet,
Aitor Leiza, Izar Martin,
Imanol Manterola, Esti
Esteibar, Jon Manzidor

publizitatea

861056 tf.

inprimategia

Gertu Koop. E.

(Zubillaga - Oñati)

tirada: 800 al

Lege gordailua: SS-40.94

BALEIKEk ez du bere
gain hartzen aldizkarian
adierazitako
esanen eta iritzien
erantzunkizunik.

Argazki Zaharra.....	2
Hitzaurrea.....	3
Gutunak.....	4
Gai Librean.....	5
Ze Berri?: Rodabailoak, "Txato", Wiron.....	6
Erreportaia: Narrondo ibaiko lanak.....	10
Elkarrizketa: Jon Maia.....	12
GEHIGARRIA: AEK eguna	
Olarru zopa:.....	15
Sexualitatea.....	16
Natura: Badiako hegaztiak.....	17
Izerdi patsetan: Enbil eta Alberdi. Triatloia.....	18
Kultur Agenda:.....	22
Gaztedia:.....	24
Musika: Potato.....	25
Denborapasak:.....	26
Merkatu txikia:.....	27
Kontraportada:.....	28

URRIAN ERE, FESTARIK FESTA

Udaran zehar herriz herri, festarik festa ibili ondoren, pixka bat lasaitzeko garaia iritsi zaigula dirudi, baina ja-jai! Duela gutxi hor izan ditugu Kontxako eguna(k), EGIN eguna, Kilometroak, ... Eta hemendik aurrera patrikak dagoeneko ondo hustuta dauzkagunean, asteburuero ere badegu zerbait: urriak 8an Intsumiso Eguna Bermion, astebete beranduago Nafarroa Oinez Euskal Herriko beste muturrean (Tuteran) eta urriak 22an ... zer ote dago urriak 22an? Oraintxe ez naiz oroitzen baina kostaldeko herriren batean zerbait badagoela uste det, euskararen aldeko zerbait edo, Aek-k antolatutako festaren bat edo, ez dakit ziur. Baina orrialde hauetan gogoz murgiltzen bazera, informazioz ondo bustita aterako zera. Txintxo ibili gazteak!

PREMIAZKO TELEFONOAK:

Kultur Etxea.....	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epategia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 2172
Pentsiodunen Egoitza.....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Informazio sexuala.....	32 04 44

TXATO GOGOAN




Aupa Xabi,
Jada bi urte pasa dira gure artetik eraman, torturatu eta erahil zintuztenetik. Bi urte igaro dira eta gauzak ez dira batere aldatzen. Zezenak plazara irteten diren bezelaxe etortzen dira gu guztiongana. Atxilotzen gaituzte, bahitzen gaituzte, torturatzen gaituzte... eta badirudi batzuentzat behintzat, hemen ez dela ezer gertatzen. Baina, Xabi, guk gauza bat esan nahi dizugu eta hauxe da; borrokan tinko eta gogor jarraituko dugula Euskal Herriaren independentzia eta Sozialismoa lortu arte. Zuk erakutsitako bidetari harro jarraituko diogu badakigulako Euskal Herriaren Askatasuna lortzeko bide bakarra eguneroko borroka dela.

Mila esker Xabi izan zinen bezelakoa izateagatik eta zuk esaten zenuen bezela, "Mas no importa, dijo Dick Turpin, huiremos por la claraboya".

Geurea da garaipena, Jo ta ke irabazi arte!!!

Zumaiako JARRAI

GUTUNAK



Atal honetan zumaiarren ohar, iritzi, kexa guztiak bildu nahi genituzke. Idatzi beldurrik gabe, NA zenbakia ahaztu gabe, eta utzi ezazu Forondan edo eta Joxe Manuelen kabinan.

BIDEAK eta BIDEAK

Badira hainbat leku herrian, utzikeriaren gaitzak jota aurkitzen direnak, eta badira beste hainbat toki, bereziki zaintzen dituztenak.

Utzikeriaren bi kasu nabarmen aipatuko ditut: Batetik Torreaga pareko errepedeko zubia. Torreagako belarditik bertako espaloian sartu ohi diren sastraka eta adarrak direla eta, askotan zaila egiten zaigu oinezkoei bertatik lasai igarotzea. Bestetik, Gautxori-ko bidean dauden zuloak. Autoarekin bertatik igarotzean beldurra ere emateko moduko zulo bat aurki daiteke bertan, antzeko beste hainbat zulo txikiagorekin batera.

Bi hauen kontraeredu nagusi bezala, San Miel-ko bideak jasotzen duen tratu berezia da. Bide bazterretako sastraka guztiak duela gutxi garbitu berri dituzte, eta bi urte eskas dira asfaltatu zutela

errepede guztia.

Ea bertan bizi den norbaiti, gainontzeko herritarren alde ere zerbait egitea bururatzen zaion.

C.P.

N.A. 36.126.376.

BUZOIETAKO PROPAGANDA DELA-TA

Askotan ilusioz zabaltzen dut etxeko buzoia barruan paperen bat somatzen dudanean; baina gehienetan bankuko kartak izaten dira eta bestela propaganda; eta azkenaldian, gainera, ia beti neure onetik ateratzen nauen propaganda izan ohi da.

Zenbat euskaldun dago Zumaian? Herri euskalduna al da? Ni baiezkoan nago eta gehiago izatea gustatuko litzaidake. Baina sarritan buzoitik propaganda ateratzen dudanean, Zalantzak izaten ditut ez ote

nagoen Cordoban edo Palentzia aldean, DEN-DENA gaztelaniaz idatzirik egoten baita. Merkealdi, aukera eta eskaintza bereziak, denda edo zerbitzu bat zabaldu behar dela-ta, erdaldunek bakarrik jakin behar al dute? Beldur al dira euskaraz ez ote dugun ulertuko? Okerrrena da, gainera, dendari gehienak euskaldun peto-petoak izaten direla eta horrelako hankasartzeak oharkabean egiten dituztela; euskara hutsean egon arren, eskaintza ona bada, erdaldunak ere neke gutxi izango du testua ulertzen.

Baleiken denda eta zerbitzu askoren iragarkiak ikusten ditut eta lerro hauen bidez animatu nahi nituzke horrelakoren bat egin behar dutenean, propaganda kanpainaren bat alegia, euskara hutsean egin dezaten, edo gutxienez euskaldunok (bertako hizkuntza hitz egiten dugunok) bazterten ez gaituen moduan (elebitara). Era berean, Baleikeko irakurleei eta zumaiarrei orokorrean proposatuko nieke propaganda euskaraz egiten duten lekuetan erostea eta zerbitzu horiek erabiltzea.

Zumaia euskaldunagotzeko bidean guk eman behar ditugu urratsak. Geure esku dago eta animo!

I.A.

15.983.963

kukutz
SERIGRAFIA

- *KAMISETAK
- *KAPELAK
- *TXISKEROAK
- *TXANDALAK
- *PAPELEZKO POLTSAK

Narrondo 8, 2. esk

Erribera Kalea, 6
Telefonoa: 86 17 07
Fax: 86 17 07
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



**ABELIN
LINAZISORO**

Itsasoa

Berdeiluna, urdinska, marroixka, urdina, gris-berdea, urdin-urdina, gris iluna... Zenbat kolore ez ote du hartzten itsasoak! Hodeien edo zeruaren kolorea islatzen duela diote. Ez dakit. Batzuetan bai. Beste batzuetan inondikan ere ez: grix-berdea, arroxa-urdina... Baina koloretik aparte itsasoak trankiltasuna sortzen du. Gabriel Aresti poeta handiak zion, itsasoak amaren sabelean gozatu zuen naretasuna ekarriarazten ziola gogora.

Gu ez gara hain atzera joango. Gure memoriak ez digu hainbestearaino ematen. Baina, bai, intuitzen dugu, poetarekin batera, haurtzaroan itsasertzean hainbeste gozatzeak edukiko zuela zerikusirik amaren sabelean igerian jardutearekin. Horregatik, Santixo gainean, Algorrin edo Talai-mendian belarretan etzanda begiak itxi eta beherago dagoen itsasoaren zurrumurrua aditzerakoan, hain patxadan eta lasai sentitzen gara, non ez baitugu ondoan beste inoren laguntasun beharrik somaten. Orekatuak. Sosegua nagusi. ekuru. Baketsu. Bai. Badu, bai, itsasoak guk ulertzen ez dugun zerbait. Batez ere, motorra hartu eta arrainak edo txibiak harrapatu ondoren, barrurago sartu, motorra gelditu eta geratzen bagara, belarriak erne, aditzen, entzuten... Isiltasun hark zerbait sakona du. Lehorretik, oso urrutitik, heltzen zaizkigun hotsak ere sosegatuagoak dirudite. Une hoietan, itsasotik so, lurra ere orekatua, armonian dagoela ematen du. Lasaitasun horretan murgildurik, bainujantzia kendu, edo jantzia, eta larrugorritan igeri egiten badugu, askatuago sentitzen gara. Batez ere beti preso edukitzen dugun hankarteak libratzen badugu. Naturarekin bateginda egoten gara. Beharbada mendian, oso urrun, pagope edo harizpe batean etzanda, hostro artetik pasatzen den haizearen hots leuna eta urrutiko zintzarrien doinua entzuten, halako zerbait sentitzen dugu. Orekatua sentitzeko zibilizaziotik urrutiratu egin behar izaten dugu. Beti. Mendi muturrean edo itsasoan denbora ez da neurtzen. Ez du garrantzirik. Batez ere txalupan itsaso barearen erdian bagaude. Herrian edo hirian, aldiz, besteek esaten digute zer eta noiz egin, zenbat denbora dugun, zer pentsa dezakegun. Naturaren kontra ari gara borrokan. Eta natura aurkitzeko gero eta urrutirago joan behar izaten dugu. Zahartzen garenean, luze ibiltzeak nekatzen gaituenean, Zumaiarrok nondik ikusi behar dugu itsasoa? Patxineko (orain Pulpo) izkinan jada ez dugu talairik. Itsasoa lapurtu digute.

**Mururoako
saio
nuklearrak**




Axier Urbieta

**Doinua:
Nafarroako
mendi gainetan**

Nahiz inor ere ados ez egon berekin mundu osoan hamaika proba egin nahi ditu Chirac jaunak Mururoan hondamendirik ez dakartela esan arren lehengoan ziur ondorio txarrak izango ditugula luzaroan

Lehenagotik frogatu ugari egin dituzte jadanik egia esan ondorioak oso onak ez izanik arrai gehienak kutsatu ziren probak egiteagatik eta hangoek kantzerra dute arraiak jateagatik



**BELARDENDA
SIWA**



Esther Blanco
OSTEOPATA-MASAJISTA
Basadi 5-C behea
Tlf: 143404 - 860012

Huntza, o.k.



lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIXKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA



Amaiako plaza, 7
Tel.- Fax: 862385
20750 ZUMAIA

60 mila rodabailo ekarri ditu Orrua enpresak aurreko produkzio guztia galdu ondoren

400 mila rodabailo galdu ondoren, Orrua enpresak 300 milioiko inbertsioa egin beharko luke berriro martxan jarri ahal izateko. Horregatik ez dute garbi nola jokatu duten. Udara honetan itsasoko ura beroegia egon dela eta, Orruan zituzten rodabailo guztiak hil egin zaizkie, honek 200 milioiko galera eta 7 lanpostu suposatuz.

Aldizkari honek jakin ahal izan duenez, Orrua enpresak joan den ostegunean 60 mila rodabailo ekarri zituen Bretainiatik produkzioa berriro ere martxan jartzeko, uda honetan 400 mila rodabailo galdu ondoren ura beroegia egoteagatik. Kamioi luze batean ekarri zituzten, horretarako prestatutako 13 ontzi berezietan. 15 eta 20 gramo bitarteko pisua dure arrain hauek eta bi urte beharko dituzte tamaina egokia lortzeko.



Rodabailo edo erreboilo hauek behar bezala hazteko 5 eta 24 gradu bitarteko tenperatura da egokia eta



Ordubetean aritu ziren 60.000 rodabailoak beren "etxe" berrira pasatzen.

azken 25 urtetan ez da inoiz 22 gradutik pasa. Aurtengo udaran berriz, 24 gradutik gora izan du urak zenbait egunetan, eta honen ondorioz Orruako rodabailoak hil egin dira.

Akilino Etxarri gerenteak adierazi duenez arrazoietakoa bat barrako obren eragina da. *"Barra berriak urak kalitatea galtzea eragin du. Gainera, ura geldiarazi egin du eta horrek tenpreatura gehiegi igotzea ekarri du"*. Hori dela eta, enpresa honek Eusko Jaurlaritzaren Portu Zuzendaritzaren aurkako errekurtsio bat jarri du, obra hauek ingurugiroan izan zezaketen eragina ez neurtzeagatik.

Gainera uraren berotze honen aurrean, ezer gutxi egin zitekeen, erabiltzen diren ur kopuruak kontuan izanez gero. Hain zuzen ere, enpresa

honek orduko 3 milioi litro behar ditu (hamar aldiz Donostiak edateko behar duena) eta momentu batean guzti hori hoztea oso zaila da.

Etorkizuna kolokan

Honek eragin larriak izan ditu enpresarengan. Urte t'erdi edo bi urte pasako dira rodabailoa saltzen hasi aurretik. 200 milioiko galerak izateaz gain zazpi langile kaleratu behar izan dituzte. Orain gerentea bera eta mantenimendurako hiru langile besterik ez dira geratu.

Orain arte itxita egon ondoren, 60 mila rodabailo hauekin berriro lanean jarriko dira. Hala ere, horretarako dirutza galanta behar dela eta, oraindik ez dute erabaki aurrera begira nola jokatu duten. ■

JZETA

orrastegia

Urumea 6
Tlf: 862083



• SUKALDERAKO ALTZARIAK
• ELEKTROGAILUAK
• BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

Erribera, 8
Telefonoa: 861094

Agur eta ohore gudari gaztea

Jende ugari izan da "Txato-ren" omenez egin diren ekitaldi guztietan, bere heriotzaren bigarren urteurrena izan den hontan. Azken omenaldia beheko plazan eskeini zitzaion, manifestazio jendetsu batekin amaitu zelarik.



Ehundaka lagun izan ziren Algorrin, Xabi-ri egindako lore eskeintzan.



Gazteak harriturik geratu ziren Hertzainak taldeko Gari-k eskeinitako kantaldiarekin.



Giro onean, umorez eta kantuz amaitu zen astea, Inda-Mendin eginiko afariarekin.

Auto - Konponketak
ELKAR



PEUGEOT

Estazioko kalea
20750 ZUMAIA Telefonoa: 860201

DISKO-BAR



Alai Auzotegia 2.

"Wiron 1" untzia Pasaian amaituko dute

Pasaira eraman dute "Wiron 1" untzia, astillerotako langileek azken ikutuak eman diezaizkioten Holandara bidali aurretik.


Untzi honek 12 lagunez osatutako tripulazioa izango du, berdela, sardina eta antzeko arrainak harrapatzen ibiliko da batez ere. Hauek untzi bertan fileteatu eta

izoztuko dira, bertan dituen makinei esker.

Untzi honen ondoren, Balenziaga untzitegikoek beste horrelako bat eta atunero bat egiteko hitzarmena sinatuta omen dute, baina gai hau oraindik zintzilik dago, lantegian igarotzen ari diren egoera zailaren ondorioz. ■



Untziaren irteeran, botaduran bezelaxe, jende asko inguratu zen Wiron-1 agurtzera



3.000 zalditako motorea dauka itsasuntziak. Hemen ikusten dena motore horren zati bat besterik ez da.



Puentean, pantaila eta makina berezi aurreratuak jarri dituzte.




Irteeraren egunean oraindik ere azken ikutuak ematen zebiltzan. Falta direnak Pasaian egin beharko dituzte.

ΔΙΣΜΑΝ-KOS S.L.

SANEAMENDU ETA ERAIKUNTZAMATERIALA

Iraeta
auzoa z/g
Aptdo. 78

Tlf/Fax: 14 81 24
20740 IRAETA -
ZESTOA



NIKOL-ENEA

taberna

Amaiako plaza Tfnoa. 861440

Abelin Linazisorok "Axun", bere lehen eleberria argitaratu du


Lehengo astean aurkeztu zuen Donostian, "Axun", SUSA argitaletxeak kaleratu duen bere lehen eleberria. *Egin eta Egunkariakoekin hitz egin du, Argian elkarrizketa luzea egin diote, irratietatik ere deitu omen diote eta telebistatik ere zerbait nahi omen dute. Ez da makala!*

Goenkale telesailak izan duen arrakastak eraginda, ohi baino oihartzun zabalagoa izan du liburu honen aurkezpenak. Iaz denboraldi bat gaixo egin omen zuen, ohean, eta *"lehendik buruan izandako istorioak eta gertakari historikoak idazteko gogo sartu"* omen zitzaion. Hasieran ipuin bat egiteko asmoa omen zuen, baina honek luze jo zuenez, eleberri hau da emaitza.

Maitasun istorio bat kontatzen du eleberriak, langile abertzale baten ikuspegitik. *"Fondo abertzale bat eman nahi izan diot istorioari, nire garaiko bizipen batzuetan ere oinarrituta"*.

Bestalde, Inpernupe Kultur Elkarrekin antolatuta, hil honetan Zumaian ere egingo da "Axun" liburuaren aurkezpena. Eguna, ordua eta tokia garaiz jakinaraziko dira. Segi horrela Abelin, oraingo lan honek bere segida izan dezala. ■

Arkupe
Okindegia
eta gosariak
Kale nagusia, 2

SAHARAKO HERRIARI LAGUNTZA

Saharako herriarekin senideturik dagoenez, zenbait kanpaina burutu izan dira saharauei laguntzeko eta beraien beharrak neurri batean bete ahal izateko. Gogoratuko dituzue egin ziren manta eta eskolako material bilketa. Oraingo honetan, ATUN KONTSERBA LATAK biltzeko kanpaina izango da herrian. Komeni da 250 gramoko latak izatea, eta bilketa Gurutze Gorrian egingo da, urriaren 16tik 27ra bitartean. Eskerrik asko aldeztu aurretik zuten laguntzagatik

Bi ikerketetarako inkestak egiten ari dira

Zumaiako Udalak, **hirigune zaharraren birgaitze plan berezia** dela eta, bertako biztanleek, dendariak eta gainontzeko herritarrek duten iritzia jakin nahi du. Horretarako IKEI etxeari ikerketa bat egiteko agindu dio.

Dagoeneko 400 galdetegi baino gehiago banatu dira alde zaharreko biztanle eta dendarien artean, eta bertan alde zaharrak dituen arazoak eta udalak hauei eman nahi dien konponbideei buruzko iritzia eskatzen dira, batez ere: trafikoa, aparkalekuak, merkaturak, udaletxearen kokapena, e.a. aipatzen dira.

Bestalde, alde zaharrean bizi ez diren herritarrei ere beren iritzia eskatuko zaie, telefonoz egingo diren 100 inkestak bidez.

Beste ikerketan, herritarrek **udalak eskeintzen dituen zerbitzuei buruz** duten iritzia bildu nahi da. Euskal Herriko zenbait herritan egingo da azterketa hau, eta honen helburua udalek beraien gestioa ondo zuzendu ahal izatea da.

Hau aztertzeke 200 inkesta inguru egingo dira datozen egunotan, eta bestalde, herriko zenbait talderekin eztabaidak ere antolatuko dira (taldea, adina, lanbidearen ... arabera).



**OPTIKA
ZUMAIA**

Txomin Agirre Kaia, 1
20750 ZUMAIA Tel. 143057

Narrondo ibaiaren horma sendotuz

Dagoeneko hasi dira zubi txikitik Ayra Durex-ko zubira bitarteko horma berriz ere jarri eta sendotzeko lanak. 9 hilabete inguru iraungo dutela espero da, 264 milioi pztako aurrekontua du eta Mariezkurrena enpresak burutuko ditu lanak.



Horma egiten hasi aurretik Narrondo ibaia dragatuko da.

Lehen ere behin baino gehiagotan "lehertu" denez, Maria eta Jose ikastetxearen aldetik bi zubien artean dagoen horma ondo jarriko da lan hauen bitartez.



Hala ere, lehenbizi Basadi aldeko errepidea txukunduko da, Deba eta Azpeitia aldetik datorren trafikoa hemendik igaro dadin. Bestaldean errepidearen alde bakarra egongo da zabalik eta bertatik Txikierdi aldera doazenak bakarrik igaroko dira.

Horma egiten hasi baino lehen, Narrondo ibaia dragatzeari ekingo zaio. Jarraian zimendu sendo bat

ezarri ondoren, hormigoia harriz forratuko da. Gainera bi zubien artean dauden isurketa-puntuak kolektore batekin bilduko dira, laster egingo den depuradorarako bidea erraztuz.

Behin betirako konpondu

Luciano Paguegi arkitektoak adierazi digunez, lan hauetan garrantzitsuenak ezkutuan geratuko dena izango da, horma sendotzearekin arazoa behin betirako konpontzea es-



TXOKOA
T
B
E
R
N
A
Artadi
Auzoa
Tif: 86 21 89

Jesuskoa
Faletxea
Tif: 86 17 39 • C/Itia Zumaira

KABI
TBERNA - ZUMARRA
Tfnoa: 143379

pero baita. Baina hori bai, beste arazo batzuk ere konponduko dira bide batez. Denok dakigu, adibidez, Gurutze Gorritik Gautxori aldera doan bidea oso estu eta eskasa dela oinezkoentzat.

Lan hauekin, 2-3 metroko zabalera izango duen espaloi bat egitea pentsatua dago, ibaiaren aldetik. Zubi txikitik Etxe-Ona bitartean ibaiari terreno pixka bat jango zaio; espaloia zabalxeagoa izango da tarte honetan eta zuhaixka batzuk jartzeko asmoa ere badago. Hortik beste zubira bitartean ibaia estutzea komeni ez denez, espaloia ez da hain zabala izango, baina beti ere gutxienez 2'25 metroko zabalera errespetatuko da. ■




Trafikoa Basadi kaletik desbideratuko da eta bestaldean motorentzako amarre berriak jarriko dira.

Apaingarri bereziak

Espaloia behar bezela argitua egon dadin, ibilbide guztian zehar paol berezi batzuk jarriko dira, "Narrondo" izena duten modelokoak hain zuzen ere. Bestelako apaingarri eta zerbitzuak ere egongo dira, gainera. Adibidez, Maria eta Jose ikastetxerako sarreraren aurrean iturri bat jarriko da. Zubi txikiaren inguruan, Julio Beobideri eskeinitako eskultura bat ezartzeko asmoa dago; eta azkenik, Etxe-Onaren parean, paolak hasten direneko hortan zutarri bat eraikitzeko asmoa dago. Zutarri hau 5-6 metroko altuerakoa izango litzateke, itsas-paol baten itxurakoa, goian argi batekin kostaldeko herri honetarako sarrera irudikatuko lukeena.

Zutarri honen ondoan arranpa txiki bat egingo da, eta Zumaiako Motoren Elkartearekin hitz egiteko asmoa dago, untzien kokalekua eta lotzeko modu egokiena topatu ahal izateko.



Surf

Torre Luzea 2
Tel. 83 50 24
20800 ZARAUZ

Empera. 1/8
Tel. 85 23 69
20750 ZUMAIÀ




leize
TABERNA

Juan Belmonte, 8
Tel. 880415 ZUMAIÀ

Jon Maia: "Ezin da esan Zumaiian gazte mugimendu bat dagoenik"

Nork ez du ezagutzen mutil hau? Hil honetan hasiko den Gipuzkoako txapelketan faboritoen artean aurkitzeaz gain, hainbat kontutan ibiltzen da aurrera eta atzera. Bere filosofia propioa aplikatzen baitu, "bizitzaren kolore guztiak dastatu nahi badituzu, hobe da bizimodu aberatsa izatea", eta berak behintzat hala egiten du. Ikusi bestela zer kontatu digun.



Gipuzkoako Txapelketan Zumaiian abestea egokitu zaio Joni. Animo!!

ZUMAIAKO BERTSO ESKOLAN HAINBESTE JENDE IBILI ETA GERO, ZU BAKARRIK ZABILTZA PLAZAK EGITEN. ZER GERTATU DA?

Hori normala da, ze bertso eskola baten helburua ez da bertsolariak sortzea, bertsolaritza zabaltzea baizik, eta jendeari erakustea zer den bertsoa. Gero hortik bertsolariak ateratzen badira, hobeto, baina zaila da. Begira bestela zenbat jende apuntatzen den futboleko Zumaiakon eta futboletik ez da inor bizi ia-ia. Hori normala da.

ZURE BURUA BERTSOLARI GAZTEEN AITZINDARI MODUAN IKUSTEN AL DEZU?

Bertsolaritzan saltoa 80. hamarkadan izan zen Amurizarekin batera. Amurizak bertsolaritza eskolaratu zuen eta aukera abaniko berri bat ireki zen. Hortik aurrera

atera geran bertsolari gehienak bertso-eskolakoak izan gera, eta hor izan ziren Euskitze eta Sarasua beraien jenerazioko aitzindari moduan. Gero hor tarte bat geratu zan, jenerazio batzuk pasa ziran bertsolari nabarmenik irten gabe, eta gero irten ginen bertso eskolako fruitu berrienak, eta hor bai hasieran niri tokatu zitzaidala zaharrekin batera ibiltze hastea. 16-17 urterekin hasi nintzen hauekin kantatzen.

"Bertsolaritza kamaleoi bat bezela da, edozein lekutara moldatu daiteke"

HALA ERE, BERTSOLARITZAREN MOLDEAK HAUSTEN HASI ZENA ZU IZAN ZINEN.

Azken finean, guk bertsolari gazteok egin deguna eta nik behintzat egin detena da, ni naizena isladatu bertsotan. Nik neure kultura mota daukat, oso ezberdina Sebastian Lizaso eta jende honek daukanetik, nere kultura mota, nere hizkera mota, nere umore mota eta guzti hori da kaleko edozein gazteki eduki dezakeena, eta hori isladatzen det bertsotan. Hortik dator zaharrekin haustura hori. Baina haustura naturala da.

ZEIN DIRA GIPUZKOAKO TXAPELKETARI BEGIRA JARRIAK DITUZUN HELBURUAK?



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19 Telefonoa: 861433
20750 ZUMAIA Fax: 861067

MAITE ILEAPAINDEGIA

Berezitasuna ileen sendabidean

Amaiako plaza z/g Tlf: 143278



Loitz

- Eskola eta Bulegoko Materiala
- Fotokopiak
- Enkuadernazioak
- Plastikazioak
- Fax Publikoa
- Aldizkari eta Opariak

Erribera Kalea, 4
Telf.-Fax: 14 34 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

Txapelketa hau nahiko garrantzitsua da neretzat, ze azken finean txapelketa eskaparate bat da, eta bertsolariok ez daukagu beste biderik ezagutzera emateko. Hor dago txapelketaren garrantzia, gero plazaz-plaza ibiltzeko txapelketan paper ona egin beharra dagoela ematen du.

Txapelketak ez zaizkigu inori gustatzen. Nik asko sufritzen det, nerbioso jartzen naiz... askoz zailagoa da zu zerana ematea, errenditzea txapelketa batean jaialdi batean baino. Ez diot metarik jartzen nere buruari, baina urruti heltzea da komeni zaitena.

Joni letrak eskatzen azkena, Gari izan da. Oso gustora geratu omen da, gainera.



"Nahiago nuke jendea gehiago inplikatuko balitz lanean, kontu guztietan"

BERTSOLARITZAK BERE TOPEA JO DUELA DIRUDI. ETORKIZUNIK IKUSTEN AL DIOZU?

Komunikabideen funtzioa dela ta, eta bertsolari gazteok erakarri degun publiko berriarekin, "boom" bat egon da. Eta alde hortatik, publiko mailan topea jo du, baina tope horri eskerrak, bertsolaria saiatzen da beste bide batzuk irekitzen eta hori ona da. Nik etorkizun handia ikusten diot bertsolaritzari, ze bertsolaritza kamaleoi bat bezela da, edozein lekutara moldatu daiteke, edozein garaitara, edozein kulturatar, edozein entzule klasetara moldatu daiteke bertsolaritza.

TALDE EZBERDINENTZAT LETRAK EGITEN ERE IBILIA ZARA.

Ni *Negu Gorriak*-i kantak egiten hasi nintzen. Ferminen apostu bat egin zuen nerekin, berak ez baitzekien ezer bertsolaritzaz eta ezta nitaz. Ikusi ninduen rap bat botatzen Elgoibarko gaztetxeko jaialdi batean, ziurraski bertsotan bota den lehenengo rap-a izan da, eta tipoa kuriositatez etorri zan gugana. Hortik zazpi kanta idatzi nizkion diskorako, eta gero horren bidez, talde gehiagok deitu didate: *Bizkar Hezurra, Def Con Dos, Xaximiku, Zaldibobo, Imuntzo eta Beloki...* eta orain *Hertzainakeko Gari*-ri egin dizkiot.

Espero det hor aurrerantzean lan gehiago egitea, ze ilusioa egiten du zure kantak diskotan ikusteak. Ilusio handia egiten du, bai, jendea zure kantak abeste ikusteak, betirako geratuko diren gauzak dira horiek.

MUSIKA MUNDUAN BADA LETREN INGURUAN POLEMIKA BAT. BATZUEN USTETAN LETRA ABERTZALEAK EZ BADITUZU EGITEN EZ OMEN DEZU DISKARIK SALTZEN. ZER DIOZU ZUK HORRI?

Hor diskusioa betikoa da: batzuk esaten dute "*Jo ta Ke*" ez badezu esaten marjinatuta geratzen zerala, eta diskorik ez dezula saltzen. Hori egia izan daiteke, baina jendeak "*Jo ta Ke*" nahi badu entzun zergaitik ez dezu esango? Nire ustez hori positiboa da, gaztedi bizi baten seinalea da. Eritzi guztiak errespetatzen ditut. Nik letrak bai "politikoak" eta bai bestelakoak ere egin ditut.

ZEIN DIRA AUERRERA BEGIRA DITUZUN ASMOAK?

Nire intenzioa da bertsotan ahal bada goi-mailan jarraitzea.

JOSEBA OSA
- ITZULPENAK -
 EUSKARA-GAZTELERA-
 KATALANA-INGELESA-
 FRANTSESA
 Tel / fax: 148065

ekin
 ELEKTRIZITATEA
 INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
 INSTALAZIO MUSIKALAK
 AKUMULADOREAK
 ALARMAK
 ANTENAK
 PORTERO AUTOMATIKOAK
 DENDA: K. Nagusia, 8 - Telf. - Fax: 14 30 97
 TAILERRA: Larratxo, 10 behe 1º - Telf. 14 34 74
 20750 ZUMAYA (Gipuzkoa)

SUKALDEKO ALTZARIAK
DORNUTEGI
 ARMAIRU ENPOTRATUAK
 Basidi Auzategia, 10 behe
 Telefonoz: 862051
 20750 ZUMAYA (Gipuzkoa)

Horretarako ikasten jarraituko det, euskara aberastu, hitz erregistroak aberastu eta horrelako gauzak. Beste aldetik musika munduan pixka bat gehiago sartzea nahi det.

Hortarako proiektu bat daukagu martxan, *Zazpi Eskaleren* antzeko proiektu bat eskeini digute. Maialen Lujanbio eta ni izango gera kantatzen, eta *Oskorriko* Bixente Martinez-ek eramango du musika asuntoa. Horrekin maketa bat aterako degu, eta ondo irtetzen bada aurrera egingo degu proiektu horrekin ere.

"Zumaiaren etorkizuneko proiektuak beldur haundia ematen dit"


NOLA IKUSTEN DEZU ZUMAIKO GAZTE MUGIMENDUA?

Ezin da esan Zumaian gazte mugimendu bat dagoenik. Mugitzen

dan jende kopuru txiki bat dago, kezkak dauzkan jende bat dago, eta askotan jende kopuru mugatu horrek bere borondatez herri osoarentzat egiten du lana, eta ematen du herri osoan badagoela zerbait. Nahiago nuke jende gehiago inplikatu balitz lanean, kontu guztietan.

ZER ESKATZEN DIOZU ORDUAN HERRIKO GAZTEEI EGOERA ALDATU DADIN?

Bere herriarekiko interes gehiago erakustea. Eskatuko nieke auto-antolakuntza gehiago, zailtasunen aurrean ausartagoak izatea eta herrian dauzkagun arazoetaz gehiago kezkatzea. Herriko bizimoduan parte hartzea. Azken finean herri batean bizi baldin bazera zer hobeto ahal den ondoen bizitzea baino, ezta? Eta hortarako lan egin behar dezu, zuk aportatu egin behar dezu herri horretan.



Gazteei gehiago mugitzeko eskaera luzatzen die Jonek.

UDAL HAUTESKUNDEAN, HERRI BATASUNA-REN ZERRENDATAN AZALDU ZINEN. ZEIN HELBURUREKIN?

Nik uste det herri bakoitzak erabaki behar duela bere etorkizuna, bai Euskal Herria izan, bai Zumaia izan, eta Zumaiaren etorkizuneko proiektuak neri beldur haundia ematen dit. Zumaia herri turistiko klasiko bat izatea, edo Euskal kosta guztia kosta turistiko bat izatea, horrek dakarren nortasun galerarekin, kultur galerarekin, eta gainera hemen dagoen oinarria industria izanik.

Horrelako balore insegurotan etorkizun osoa inbertitzea neri oso arriskutsua iruditzen zait, eta Herri Batasunak Zumaian etorkizuneko proiektu horren aurrean beste alternatiba batzuk eskeintzen ditu, eta nere kezka haundiena hori izanik gaur egun, Zumaiaren etorkizuna, Euskal Herriarenarekin batera, neri iruditzen zait alderdi honek ematen ditela lan egiteko aukera jatorra.

"TXATO" HIL ZUTELA BI URTE IGARO DIRA. ZER ESANGO ZENIOKE?

Zumaiako gazteak bera joan zenean baino dinamika haundiagoa hartzen ari direla zorionez, eta horrek poztuko luke, zer azken finean berak bere herria maitatzearen galdu zuen bizitza.

Eta esango nioke egunetik egunera gehiago maite dugula, eta beti izango dela eredu guretzat. Eskerrak ematen dizkiot bere herriaren alde egin duen lanarengatik. ■

INPERNUPE ELKARTEA

Erribera kalea Telefonoa: 861523
ZUMAI A

SOLOZABAL AUTOESKOLA


Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilia
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416

SALBATZEKO ITO

Kontu-kontari



Motxian hi!

Nor: Manuel Esnal
Nola: Manueltxo

- Ali Baba bazina, zer eskatuko zenieke lapurtzeko 40 lapurrei?
Askatasunaren giltza.
- Zer abesten dezu dutxan?
"Cantando bajo la lluvia"
- Hil ondoren zer?
Hil ta pakia!
- Neska bati botako zeniokeen piropoa.
Pitxuri.
- Zerk sortzen dizkizu hotzikarak?
Kilimak.
- Itsasoa ala taberna?
Itsasoa. Sanoagoa da.
- Zerk ematen dizu amorrua?
Jende txarrak, belar txarrak.... txarra den guztiak.
- Zerk pozten zaitu?
Ilusioa edukitzeak.
- Alfonbra hegalaria bat izan ezker, nora joango zinateke?
Xoxotera.
- Bizitzako ilusio bat.
Independentzia eta pakea.
- Bakalaua ala trikitixa?
Trikitixa! Hori ez dago pentsatu beharrik.
- Zer egingo zenuke ohe borobil batean?
Buertaka ibili.

Beste gertaera hau ere kontaktzen zuen Moninek gerratik. Bi mutil sendo andariak (kamilerook) ziren. Base-ritarrak biak eta oso indartsuak omen ziren, lanbide hartarako behar zen bezela. Irakasleak honelako instruzioak eman zizkien, tornikete delakoa zer zen azaltzeko:

- Odolik eta horrelako zerbait denean, ondoan bendatu eta estutu, beldurrik gabe.

Mutilak berean ari zirela, gudari bati balak bekokia ebaki zion. Odola hasi zitzaion eta andariak berehalaxe lepoa bendatu zioten. Baita estutu ere. Bertan ito zuten.



ALBAITARITZA KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL
- ALBAITARIAK -

Basadi, 7 behea
20750 ZUMAIA
Tel. 143310

LARRIALDIAK
- 24 orduetan
- Zeure etxean
- Telef. 900-282828
Abonatu zbkia: 247790

BIZKOR FOTOKOPIAK




-Enkuadernaketak
-Plastifikatzeak
-Fax publikoa
-Bulegoko materiala

Basadi 14, behea - Tlf: 143120

Pornoa: Telebistako seXua

Ongi etorri fantasiatzko mundu batera. Fantasia? Bai. Non aurkituko ditugu bestela metro erdiko zakil tente horiek. Non daude bestela, hankak zabalik, zuri deika ari diren neska ilehori despanpanante hoiek. Eta beste alde batetik, non irauten du felazio batek hogeitabost minutu? Bai, fantasiatzko mundu batean. Honen izena: pornoa.



Hasiera batean Sala X delako zine ilun eta usaintsu batzuetan botatzen ziren pelikula hauek, eta bertara joaten ziren pertsonak, dejeneratu eta errepremitu bezela ikusten ziren. Pertsona bakarti eta ixilak isaten ziren, bakardadean gozatu nahiean. Baina baziren beste ikusle klase batzuk ere, besteak beste, postura berriak ikastera joaten ziren bikoteak. Baita galerazitako mundu batekin beraien lehen esperientzia eduki nahi zuten gaztetxoak ere. Hala ere jende gutxi joaten zen, lotsa ematen baitzuen han sartzeak.

Bideoaren garaia iritsi zenean, pornoak berpizkunde bat izan zuen. Jendeak bideo-klubean pelikula alokatu edo katalogo bidez eros zezakeen, eta etxean, bakardadean eta zer esango zutenaren beldurrik gabe, lasai-lasai ikusi.

Jendeak, gazteek gehienbat, bideoa alokatu eta kuadriletan ikusten zuten, denak barrez eta algaraka,

baina... zein ez zen joaten komunera edozein aitzaki jarrita?

Baina moda guztiak bezela, pornoarenak beherakada bat izan zuen. Zintak, inork alokatu gabe, hautsez betetzen ziren. Orain, ez dakit morboagatik edo zergaitik, pelikula pornoak oso ikusiak izaten dira. Ostiral gauero, Canal plus telebista kateak, pelikula hauetako bat botatzen du. Kate honetako harpidedun ez denak, taberna batera joatea dauka, bertan botatzen ariko da eta seguruenez. Milioika pertsona dago pelikula hauek kodifikatuak ikusten dituen, hau da, marra tartean zerbait ikusi nahiean.

Honekin, eta telefono erotikoenkin, bakarkako sexuaren garaia heldu dela dirudi. Jendeak ez du beste pertsona baten beharrik sexuarekin disfrutatzeke; masturbazioa da soluzioa. Pornoaren munduan sekulako diru pila mugitzen da. Pelikula hauek

oso merkeak direnez, eta salmenta prezioa nahiko haundia, dirua barra-barra sartzen da egilearen eskutan. Nahikoa da kamera bat eta "aktore" batzuk edukitzea. Ez da istorio sakon bat behar, garrantzitsuena ohe gainean gertatzen dena baita. Diru pixka bat atera nahi baduzue, badakizue zer egin.

Bueno, hau porno munduaren historia txiki bat da. Ostiral gauero, informazio gehiago lortu dezakezue telebistan. Hala ere, nire aholkua honako hau da: maite duzuen pertsona horrekin disfrutatzea komenigarriago da, telebista irudi batzuekin gozatzea baino.

Ah, ahaztu aurretik. Mutilak, ez akonplexatu metro erdiko zakil hoiekin, gehienak operatuak baitira. Bestetik galdetzen baduzue nola irauten duten hainbeste denbora isuri gabe, erantzuna hau da: zinea fantasia da. ■



ZUMAIÀ



AUTO-ESKOLA



- * Gida-balmen guztiak ateratzeko balmendua
- * Praktika eta azterketak Azpeitian
- * GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea
☎ 861018

20750 ZUMAIÀ



balezulo

inportaturiko erropa eta artisautza

Basadi 3 Zumaia

Naturaren bitxikeriak

Lehengo hilean Algorrin agertu zen bale baten berri eman genuen. Egun batzuk beranduago Kepa Uranga arrantzale zumaiarrak hildako dortoka bat jaso zuen bere sareetan, Zumaiako barraren kanpokaldean, eta Getarian egon zen bitartean ikusmin haundia piztu zuen. Irailean, berriz ere Algorriko haitzetan ezpata-arrain bat azaldu omen da, nahiko haundia, hau ere hilda, zoritxarrez.



Udazken honetan, asko izan dira gure padurara azaldu diren hegaztiak, batzuk negua igarotzera eta beste batzuk atseden hartu eta elikatuzera. Hauen artean aipagarrienak Mokoabalak edo espatulak (*Platalea Leucorodia*) izan dira, babestua dagoelako, hemen ikustea arraroa delako eta oso gutxi geratzen direlako. Lehenbizi bederatziko talde bat agertu zen eta hurrengo batean hamabikoa.

Bestalde, azken egunotan beltzarga edo zisnea (*Cignus olor*) ikusteko aukera ere izan dugu gure paregabeko badian. Edozein herri zibilizatutan hau nahikoa litzateke padura honi babesa emateko, baina badirudi Zumaia horretan ere berezia dela.

IHINTZA
taberna

Tlf: 860472
Ortega y Gasset, 3

TXALAPARTA
OPARIK

Angeles Sorazu, 2
20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)

Telf. 14 30 89
Fax. 43 06 37

JEMAR

LOREDE NDA
LANDAREAK
LOREAK
HAZIAK
ZERAMIKAK

Erribera Telefonoa: 860375
20750 ZUMAIA

Begirale ikastaroa martxan



Gazte Batzordeak antolatutako begirale ikastaroa, hil honen bukaeran hasiko da, eta maiatza bitartean izango dira bertan parte hartzen, izena eman duten ia 30 gazte.

Ikastaroa Helduen Heziketako lokaletan eramango dute aurrera. Pertsonako bakoitzeko matrikula 25.000 pztatakoa. bada ere, udalaren laguntza bakoitzeko 5.000 pztakoa besterik ez da izan.



Urriak 6, Gazte Batzordeko bilera



Neguko plangintza prestatzeko bilera bat egingo da **urriaren 6an**, gaueko 10etan Oxford-en.

Abendua bitartean egin beharrekoak pentsatzeko asmoa daukagu, eta jadanik badira ideia batzuk aidean: adibidez, rock aste bat, eta drogen inguruko topaketa batzuk prestatzen hasteko asmoa dago.

Pentsatu zer egin daitekeen neguan, eta azaldu Oxford-era, sin falta. Badakizu, anima zaitetz!

KALARI TABERNA JATE TXEA

- * Eguneko menua
- * Plater konbinatuak
- * Kaxuelak - Otartekoak

Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAIA



JUSTA
TABERNA
EGUNEROKO
BAZKARIAK

Erribera kalea 20



BASUSTA
ERRETEGIA

M^a Dolores Aizpurua

Pantxita Etxezarreta, 25
Telefona: 862073

20750 ZUMAIA


ZALLA

Taberna - Erretea
PLATER KONBINATUAK
OTARTEKOAK

OILASKO ERREAK

San Pedro, 4 - Zumaia Tlf: 862387

Galdona



Mendaro mariñela, 1
Juan Belmonte, 15
Tlf: 86 11 17 / 14 33 46
Fax: 861330

20750

ZUMAIA


(Gipuzkoa)

Potato: reggae freskoa

Urte asko dira Potato bandaren lehen kanta ezagutu genituela. Beraiekin batera hasi ziren talde gehienak desagertuak dira dagoeneko. Baina beraiek hor izan dira erdi ezkutuan hemendik hara bueltaka, denetik ikasten, eta askori gertatzen zaien ez bezela Potatok ez dio bere burua inori saldu eta ardo ona bezala denbora gehiago pasatzen den heinean hobetzen doan fruitu bat dugu.

Euskadi Tropikalaren garaiak pasa dira? Agian atzerantz begiratu ezker hori esan beharrean izango ginateteke, baina beraiek dioten bezala, hartu ezazu hau eta dantzatu erritmoa, bilatu zeure erritmoa. Hau "Plantala" da, Potatoren azken diska; erritmoak aldiz bertan eskeintzendizkiguten hamalau abestienak dira. Potatoren aurreko lanak "Cronicas de purteo sin más" harek, taldearen heldutasuna eta seriotasuna argi utzi bazuen, azken honek gehiago borobiltzen du Potato eta beraiek lantzen duen musika, Reggaearen arteko lotura sendoa.

Arrazoiak asko dira, esperientzia (hamabi urte talde bezala), taldeak izan dituen azken fitxajeak, duela urte gutxi sartu zen Julen "Trepik" bitziza asko eman dio, eta azken lan honetan baita ere zuzenean, "Kannabis", Gasteiztar Reggae banda desagertutik etorri diren lagunak daude. Azkenik



produkzioa ingeniari ingelesa den Derek "Demondo" Fevrier-en kontura joan dela badiogu, Reggaearen hizkuntzan maixu degunez, diska honi belarriak irekitzera beharturik gaude.

Landa ezazu, horrela zuk zeuk ematen diozu legalitatea

Musika jamaikarretik bidaia bat egitea bezala da, "Plantala". Ska doinuak, Ardo ona ska eta Parnaso ska jartzen dizkigute, gainera era zaharrera instrumentalak direlarik. Erritmo mugituenak *Es un robo* eta *Ritmo probisional* abestiek jasotzen dutenak dira Ragga estilora. Reggae klasikoan baita ere, nibel ona

mantentzen du diska honek. *Onda Pirata*, irratilibreei omenaldi bat dugu. *Elastica Conciencian* gaur egunean hainbeste ikusten diren sektak hartzen ari diren indarra kritikatzeko dute. *Antitodon*, diskaetxeek daramaten proposamen komertzialak salatzen dituzte. *Algo falla* kantak bizi garen modu kronologikoaren gain erreflexio bat da eta *Sube Sube* diska batek promozionatzeko behar duen kanta da.

Guzti horrez gain, Potatok Demondo produktorearen eskutik lau abestiren Dub edo bertsio birnahastuak eskaintzen dizkigu beraien artean "Plantala" honi izena ematen dionarena dagoelarik. Landa ezazu, horrela zuk zeuk ematen diozu legalitatea. ■



ERROTA
OPIL - OKINDEGIA

Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68
Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01
ZUMAIA



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
ZUMAIA

Telefonoa: 862206



ARGIA

Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93
ZUMAIA

Bi zumaiar zerua ikutzeko zorian

Luis Mari Alberdi eta Gotzon Enbil Munduko Zesta Puntako azpitxapeldun ditugu

22 urte beherako Munduko Zesta Punta Txapelketa jokatu berria da. Bertan, Alberdi-Enbil bikote zumaiarrak lan ikusgarria burutu du, bigarren postuan sailkatuz. Tantu batez frantziarrek menderatu zituzten arren, 2 zumaiar gazte hauen etorkizuna oparoa da, profesioaletako jauzia hurbil dutelarik. Beraiekin solasaldian aritu gera.



Profesioaletara saltoa emateko prest agertu dira Gotzon eta Luis Mari.

-Nolako maila egon da Munduko Txapelketa honetan?

Punta-puntan frantziarrak eta gu ibili gera. Gero kubatar eta Mexikokoak hortxe pare-parean; beste guztiak distantzia handira geratu dira.

-Nolatan bi zumaiar estatuko ordezkari Mundu Txapelketan?

Arraroa dirudien arren gu hor egotea, aspalditik gabiltza zestan jolasten. Manu Mugerza Zumaian izaten zen garaitik asko ikasi degu eta bueno, hor aurrean gaude.

Gu Zumaian 15 urte arte jardun degu, baina hortik aurrera bizkaitarrekin aritu gera gehientsu-enetan. Estatuko ordezkari izateari berriz ez diogu garrantzi gehiegirik eman nahi. Munduko Txapelketan parte hartu behar genuen, eta gutxienekoa zen norekin. Gainera, ez

degu ahaztu behar bai frantziarrak eta bai gu euskaldunak ginela. Haiek iparraldekoak eta gu hegoaldekoak. Beraz, estatuko selekzioarena anekdota hutsa da.

-Finalera heltzea lortu zenuten, eta bertan tantu batez galdu. Pozik ala triste?

Jokuagatik pozik, baina noski emaitzagatik triste; ez genuen galtzea espero. Gainera partiduaren azkenaldean tantu batzutako aldea atera genuen, baina azkenean abantaila hori jan egin ziguten, eta beraiek eskuratu zuten garaipena. Zorteak ere eragin handia izan zuen final horretan.

-Eta orain zer?

Orain nagusien mailako Espainiako Txapelketan parte hartu

behar degu. Txapelketa hau Donostiako Carmelo Balda frontoian jokatuko da, eta paper txukun bat egiteko esperantzak ditugu.

"Espainiako txapelketa amaitzen denean, profesioaletara saltoa emateko asmoa degu"

-Profesioaletara pasatzeko asmoa al dezue?

Bai, bai. Espainiako Txapelketa amaitzen denean saltoa emateko asmoa degu.

Hala ere -Gotzonek- nik ez dut kanpora irteteko asmorik, eta

goofy
HAUR JANTZIAK
Amaiako plaza, z/g
Telef. 860959
ZUMAIA

agustin
HARATEGIA
URDAITEGIA
Itzurun Zubaitz-bidea, 1
20750 ZUMAIA Telefonoa: 862430

CORO PRIETO
Esteticista
Boñafazio Etzegarai plazatxo z/g
Tfnoa: 861322

profesionalerara pasatzen banaiz, Euskal Herrian izango da eta ez beste inon. Gainera garbi daukat ikasketak ez ditudala alde batera utziko. Profesionalerara diru pixkat mugitzen da bai, baina "txollo" hori amaitzerakoan ez zaizu ezer geratzen; horregatik ikasten jarraituko det.

Luis Mari: ni ere ez naiz kanpora irtengo. Profesional eginez gero, hemen beharko du izan, eta noski, ikasketak utzi gabe.

-Eskeintzarik jaso al dezue, dagoeneko?

Gotzon: nik bai. Mexikotik, Florida eta Gernikatik eskeintzak izan ditut, eta gauzak behar bezala joaten badira Gernikakoa onartuko det.

Luis Mari: ez dakit. Kontu hoiek nere aitak eramaten ditu eta ez dakit. Hala ere badakit besteak beste Gernikan jokatzeko aukera badedala, eta ni ere seguruenik bertan arituko naiz.

Edozein kasutan, oraindik ez dago ezer erabakita eta oraindik gutxiago lotuta. Gainera gertatzen dena da, pilotari askok debutatu egiten dutela bai, baina gero ez dute partidurik jokatzeko. Horregatik, lehendabizi ondo eta patxaroso hitz egin beharko degu (baldintzak, partidu kopuruak,...).

- Zuek biok Zumaiako Zesta Punta Eskolatik irtendakoak zerate. Badirudi eskola honek bere fruituak ematen ari dela, ezta?

Bai, baina pixkat aldatu egin da,

mentalitate aldetik batez ere. Lehen, orain bost bat urte, igual jende gutxiago ginelako edo, gogo eta seriotasun handiagoarekin entrenatzen zen; orain berriz hobby bat bezala hartzen du jendeak zesta. Ez dago aintzinako giro hura.

" Orain gehiago hobby bat bezala hartzen dute herriko gazteek zesta"

- Hala ere betiko komeria, frontoia. Frontoi egokirik ez dago herrian zestarako eta dagoena poliki-poliki hondatzen ari da. Non dago arazo honen irtentidea?

Garbi dago Zumaiako frontoia ez dela zestan jokatzeko egokia. Ez dago besterik ordea, eta ondorioz hor jarduten dute pilotan. Arazoa da 15-16 urte betetzen dituen zestan jokatzeko ari denak, hemengoak motz geratzen zaiola, baina gehiago ez dagoenez, Odietan ibiltzen dira.

Soluzioa, besterik ez bada, Udalak laguntza ekonomiko bat ematean datza; hau da, kanpora irten behar denean frontoi egoki batean entrenatzera, desplazamendua eta estantzia ordaintzeko dirulaguntza eskeintzea. Gainera normalean Bizkairaino irteten da, hango frontoia direlako zestarako egokienak.

Ikusten denez, bi gazteek zer nahi duten argi dute, eta ez degu zalantzarik profesionalerara ere arakasta lagun izango dutela. ■



Munduko txapelketan izan ziren finalistak, partidua amaitu ondoren.

KOSTA GAS



GAS ETA
KALEFAZIO
INSTALAZIOAK

Etkezarrera, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

expert



ELEKTROGAILUAK

Mertxe Aizpurua
expert eta
Repsol-Butanoren
Banatzaile Ofiziala

**GURE TXOKOA
TABERNA**
Kaxuelita eta pintxo
ezberdinak
San Pedro kalea Zumaia

Zumaia - Azkoitia I Triatloi arrakastatsua

Lehenengo hilaren 23an jokatu zen lasterketa honen 1.edizioa, eguzkia lagun, eta Borja Oses izan zen Azkoitiako helmugara lehen postuan iritsi zena. Emakumeen artean Meritxell Henales izan zen azkarrena, eta Xabier Alzibar izan zen lehen zumaiarra.

Partehartzaile ugari izan zen, 144 guztira, hauetatik 12 zumaiarrak, eta Zumaian igeriketa frogatik jokatu zen. Jendetza izugarria bildu zen Arranplatik hasi eta Talai-Pera bitartean. Ikusgarria izan zen triatloiaren lehen frogatik; 1'5 km igerian egin ondoren arranplan irten eta bizikleta harturik Azkoitiara joan ziren Zarautz eta Meagasetik, han zapatilak jantzi eta 10 km korrika egiteko.

Alde handia egon zen uretako frogatik; lehenak 16'38" egin zituen



Atera zuten aparrarekin Urolak yakuzi bat zirudien.

bitartean, azkenak 46'04" behar izan zituen.

Gizonezkoetan Borja Oses-ek erraz irabazi zuen, bigarrenari ia 5 minutuko aldea atera baitzion; irabazleak guztira 1:51:21 denbora egin zuen. Lehen emakumea, Meritxell

Henales, 58.postuan sailkatu zen eta 2:20:28 egin zuen.

Xabier Alzibar izan zen lehen zumaiarra, 2:09:51 egin zuen eta 25.postuan sartu zen. Gainontzeko zumaiarrak ere oso ondo aritu ziren: Erlantz Esteibar 41.postuan sartu zen, eta Mikel Sasiain 46.ean.

Oso erretiratu gutxi egon ziren, eta hauen artean zumaiarrik ez zen egon gainera. 6 triatleta lasterketatik kanpo utzi zituzten, arauak ez errespetatzeagatik.

Lehen urtea izan dela kontuan harturik antolaketa oso ona izan zela aipatu behar da. Laguntzaile ugari izan ziren, eta eguraldia ere portatu zenez, dena primeran atera zen. Zorionak, beraz, Azkoitiko Triatloi Taldeari eta bertan ibili diren zumaiarrei.

Ea hurrengo urtean ere lasterketa polit honetaz gozatzeko aukera degun! Eta parte hartzeko zalantzan egon zinen hori, animatu, dirudiena baino errazagoa da eta. ■



Salto egiterakoan ere ikuskizuna eman zuten, goian arin-arina dantzatzen ari den horrek bezelaxe.



Basadi Auzategia, 10-A atzean Telefonoa: 862228 ZUMAIA

xirula



ARGAZKI ETA BIDEO
ERREPORTAIK
ERREBELATZEAK
KAMARAK
MUSIKA

TELEBISTA
BIDEO
HI-FI


Erriberka kalea, z/g
Tel. 861705

20750 ZUMAIA

Sailkapenak

Gizonezkoak

- 1- Borja Oses.....1:51:21
- 2- Luis Miguel Garijo..... 1:56:10
- 3- Etor Mendia..... 1:56:58
- 4- Angel Valero..... 1:58:14
- 5- Guillermo Rozas.....1:58:42
- 6- Iñigo Perez-Nievas1:58:47
- 7- Carlos Lopez 1:59:33
- 8- Joseba Mikel Ortega 2:00:51
- 9- Aitor Escalante 2:01:45
- 10- Gorka Mujika 2:02:11



Zumaiarrak

- 1- (25) Xabier Alzibar 2:09:51
- 2- (41) Erlantz Esteibar 2:14:36
- 3- (46) Mikel Sasiain..... 2:15:13
- 4- (50) Iñaki Aizpurua 2:17:00
- 5- Ramon Egiguren 2:25:38
- 6- Juan I. Alkorta 2:28:43
- 7- Jon Sasiain 2:29:30
- 8- Mikel Yeregi 2:32:03
- 9- Oscar Castro 2:37:49
- 10- Ibon Amilibia 2:44:10
- 11- Enrique Garcia 2:48:12
- 12- Javier Garcia 2:53:15

Emakumezkoak

- 1- Meritxell Henales..... 2:20:28
- 2- Gotzone Kubero..... 2:22:46
- 3- Nagore Basterra.....2:24:45
- 4- Eva San Martin2:36:05
- 5- Elena Maillo 2:36:39

Taldeka

- 1- Getxo Triatloi Taldea..... 6:01:00
- 2- ATT.SS. Liberto..... 6:03:09
- 3- Antzizar T.T. 6:05:28
- 9- Azkoitiko T.T. 6:40:42



Strep-tease politik egin zituzten triatletek. Hori dek postura hori!

Izerdi tantak

Plaieroak antolatu dira aurten ere

Beste urtebetez hemen degu berriro ere plaierotako txapelketa. Badirudi azken urteotan izan diren antolaketa arazo guztiak ahaztu nahi direla, eta edizio berri honetan, Zumaiako Futbol Taldeak beste urte batzuetako seriotasuna eta pulamentua berreskuratu nahi ditu.

Aurtengo txapelketa urriaren 7an hasiko da eta ohi bezala, amaiera SanTelmotako festen barne izango du.

Nobedadeei dagokienez, batetik, aurreko urteetan ez bezela taldeko jokalaririk bakoitzak seguru bat izango du. Bestetik, partiduak larunbat arratsalde eta igande goizetan jokatzeaz gain, larunbat goizetan jartzeko asmoa ere badago. Gainera norgehiagokak goizeko 8.30ak baino lehenago ez dira hasiko. Albiste ona beraz gau-txorientzat.

Bestalde, azken urteotan Zumaiako plaieroetan beti hor goian izan den Axier Kirolak taldeak aurten Zarautzeko plaierotako txapelketan parte hartuko du. Beraiekin batera, aurreko urtean hain lan bikaina burutu zuen Zalla Erregetgia taldea ere hor arituko da lehiari nor baino nor.

MILA ILE APAINDEGIA

Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

Belardenda

Paki

erribera 2
Tlf: 143156

OSASUN NATURALA

JOXE MANUEL

Kupoi batzuk erosi eta ...

ZORTE ON !!

ONCE



Diapositiba emanaldiak

Urriak 5

Martin Rodriguez-en diapositiba emanaldia: "Seychelles".
Arratsaldeko 7'30etan Foronda kultur etxean.

Urriak 6

Arratsaldeko 7'30etan Foronda kultur etxean, "Secretos de los glaciares".

Urriak 10

AEK-k antolatuta Jose Ramon Agirre "Marron"-en diapositiba emanaldia: "7 handiak".

Urriak 27

Forondan, arratsaldeko 7'30etan "India-Kachemira".



BESTELAKOAK

Ikastaroak

Urrian hasiko dira martxan, kultur etxeak antolaturiko ikastaroak. Oraindik ez digute iragarri zein ikastaro izango diren, baina zuek bada ezpada ere, adi egon kaleratzen diren oharrei.

Kultur subentzioak

Herriko kultur taldeei urteko iharduerari laguntza emateko, txostenak aurkezteko epea urriak 30 eta azaroak 17 bitartean izango da. Txostenak Forondan aurkeztu.

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

ZUMAIAN



Noiz: Urriak 29an
Non: Maria eta Jose ikastetxean
Ordua: arratsaldeko 5'30etan

Txapelketa honetako 2.faseko kanporaketetako bat Zumaian jokatu da. Saio honetan 6 bertsolari izango dira eta jakin ahal izan degunez Jon Maia herritarra bertan izango da, Irazu eta Mendiluzerekin batera.

Fase honetan 30 bertsolarik hartzen dute parte; 15 lehen fasetik sailkatuak dira eta beste 15ak Euskal Herriko txapelketan aritutakoak.

Jakingo dezuen bezela Egaña, Lizaso, Euskitze, Peñagarikano eta Jon Sarasuak ez dute txapelketa honetan parte hartuko, eta horrela gazteek aukera gehiago izan dezakete finalean sartu eta txapela irabazteko.

Fase honetatik 18 bertsolarik egingo dute aurrera, eta 3 finalurreko jokatu dira. Hauetan lan onena egiten duten 8 bertsolariak abenduaren 17an Donostiako Anoeta Kirolegian txapelaren bila arituko dira.

E.H.B.E. da antolatzailea eta Zumaiako Bertso Eskolaren laguntza jasoko du.



AIZPURUA

LIB
R
U
D
E
N
D
O
P A R I A K

Alta-Mari Auzategia, 17
Telefona: 861569
20750 ZUMAIA



Mendaro Martiela 3

TEL: 14-33-95

Zure INFORMATIKako Denda

ERTZ INFORMATIKA


- ORDENAGAILU P.C
- INPRIMAGAILU
- CD-ROM
- KRISTALEZKO PANTAILAK
- DISKETEK

GOAZEN DENOK ZINEMARA !

Udako oporrak amaitu ondoren, "Ostarrena" zine taldeak antolatutako Zine Forum saioak berriro martxan jarriko dira.

Hil honen **19an** emango zaio hasiera aurtengo denboraldiari, eta "El **banquete de boda**" filmea izango da emango duten lehena, Ang Lee zuzendari ezagunarena. Gomen-dagarria da benetan.


Jendearen orain arteko erantzuna nahiko eskasa izan denez, taldeak arriskuan ikusten du Zine Forum-aren etorkizuna, horregaitik, deialdi berezi bat egiten dute parte hartzera.




Inpernupe Kultur Elkartearen ekitaldiak

Batetik *arraun munduaren egoera* aztertzeko **mahai-inguru** bat antolatu du eta bertan Aita-Mari arraun elkarteko partaide ezberdinak izango dira. Arritxu Iribar izango da moderatzaile lanak egingo dituena.

Bestetik *Abelin Linazisoro*-ren "Axun" lehen **eleberriaren aurkezpena** ere antolatu dute hil honetarako. Abelin bera, eta Susa argitaletzeko arduradunen bat izango dira bertan. Ekitaldi hauek zein egunetan izango diren zehaztu gabe dago oraindik, baina garaiz adieraziko zaizue.



Soneto hautatuak
Ekonomia ulertzen hasteko
Elikadura eta osasuna
Atlantida: egia ala mito?
Angeles Sorazu, bizia eta mezua



IRAKURKETAKO AUKERAK

Hemen dezue Udal Liburutegian aurki ditzakezuen liburu berri eta interesgarrien aukeraketa bat. Dasta eta goza itzazu ahal dezun neurrian

Euskaraz

William Shakespeare
Oinarrizko liburutegia
Oinarrizko liburutegia
I. Rezanov - D. Vitalino
Aita Luis Villasante



Gazteleraz

Parte de una historia
Primavera con una esquina rota
La guerra de los judios
La herencia del recuerdo
Gengis Kan
En el filo de la duda
Continentes robados



Ignacio Aldekoa
Mario Benedeti
Lion Feuchtwanger
Hazel Hucker
Pamela Sargent
Randy Shilts
Ronald Wright

Saiakera

Cosmopolitas domesticos
Poder, retórica e insumisión
La zozobra del milenio
Stress

Javier Echeverria
J. Antonio Herrero Brasas
Alberto Moncada
Soly Bensabat

Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA AUTOAK

Juan Belmonte, 45
ZUMAIA

Telefonoa: 861485
Fax: 143143

EGUZKI PUB


KOKTEL BEREZIAK

Basadi Auzategia
9-A 2-B
ZUMAIA

ITSASKI
supermerkatua

Urumea kalea z/g
Zumaia


Gurutzegrama




Horizontalak 1. Ase denaren egoera. 9. Debekatu. 10. Oinarritzko edaria. 11. (Ald.) Izaera bereko gauzen eskala. 12. Izenpe. 14. (Ald.) Kolore mota bat. 15. Bilo. 16. Kanpo. 17. Usai menaren egoera.

Bertikalak 1. Aranburu, Rugby taldeko presidentea. 2. Irabazi duenari ematen zaio. 3. (Ald.) Ezagarrri, marka. 4. Infusio mota. 5. (Ald.) Ikara. 6. Samur bihurtu. 7. (Ald.) ENBA-RAZUaren eskuin aldean. 8. (Ald.) Erditzerakoan laguntzen duena. 13. (Ald.) Joan aditzaren erroan.

Jeroglifikoak



Lapurdiko herri bat



Zer dakarzu afaltzeko?

Erantzunak:

1. Angelu 2. Lau tomate

Negar egiteko txistea

Txebrolet ala Mercedes

Bere kapela handiak buru gainean dituztela hiru mexikar arratsaldeko lokuluxka botatzen ari dira lasai-lasai. Bapatean kotxe bat abiada bizian pasatzen da. Handik ordu erdi batetara batek kapela altxa eta zera esaten die beste bie:

-Ohartu al zarete? Txebrolet bat zen... 150 orduko.

Ordubete beranduago aldamenekoak:

-Ez zen Txebrolet bat, Mercedes bat zen. 180 orduko - eta kapela berriro bere lekura.

Handik bi ordutara hiru-garrenak:

-Ni banoa! Ez dut eztabaida biolentorik jasaten!

Umorea

Rober Garaik DEIADARren (64. zkia)



Juan Belmonte 5 TIF: 86 10 57



MENDI - ONDO
ELEKTRIZITATEA

- ALARMAK
- ANTENAK
 - * Banakoak
 - * Kolektiboak
 - * Satellite bidezkoak
- Atezain automatikoak
- Eta abar.

Axular 14
20750 ZUMAIA

Telefonoak:
860074 - 861569

AGURRAK

Zumaiako kuadrila guztiei: Potrotaino gaude agurrak asmatzen! Zuen mezuak jaso nahi ditugu. YA!

Jokin! Jauberrin txilipitua hartuta kaiolan sartzia bakarrik falta zaik. Goazen bixeran bila.



Pasko! Noa beitzen dek?

OHARRAK

Minusbaliatuen Taldea urriak 31ean bilduko, iluntzeko 8etan, Gizarte Zerbitzuetako aretoan.

SALEROSKETAK

Mountain-Bike bat salgai. Amortiguadorea dauka aurreko gurpilean eta oso ondo dago. Deitu 862400 edo 861463 telefonoetako batera.

Windsurf ohola salduko nuke. Telefonoak: 862400/861463.

Salmenta puntuak

- Jesuskoa
- Errota (Erribera)
- Errota (Basadi)
- Errota (Juan Belmonte)
- Ogi Berri (Amaiako plaza)
- Ogi Berri (Basadi)
- Arkupe okindegia
- Aizpurua liburudenda
- Olano liburudenda
- Loitz liburudenda
- Alai janaridenda
- Nikol kafetegia
- Inpernupe taberna
- Zalla erretegia
- Foto Gar
- Arroa Beheko estankoa

Lehiaketa goxoa



Lehengo hilabeteko iturgin edo linterneroa Javier Azpillaga zen. **Estitxu eta Itziar Eizagirrek** ederki asmatu zuten eta beraiei egokitu zitzaien hojaldrezko tarta goxoa. On egin!

Argazkiko gruak bota aurretik Erribera kalearen hasieran zegoen hostalaren izena asmatzen dezuenen artean

Txapartegi gozotegiak

eskeinitako tarta eder bat zozketatuko degu.

Utzi zure erantzuna eta datuak Foronda, ONCEko kabina edo

Foto Mertxen (Txapartegi itxita baitago) **urriak 25a** baino lehen, eta zorte on!





æek egunak

1995eko urriaren 22an
ZUMAIAN

Euskal Herri OSOAN
æek AURRERA!